

IRUTXULO

Donostiako astekaria

Tfnoak: (943) 429593
(943) 426807
Faxa: (943) 431190
E-mail: txulo@euskalnet.net

Irutxulo: San Joan 14, 20003 Donostia.
Argitaratzailea: Donostiako Komunikabideak E.M., San Joan 14, 20003 Donostia.
Erredakzioa: Alex Aisa eta Alberto Irazu.
Tfnoak: (943) 429593 / (943) 426807. Faxa: (943) 431190.
e-mail: bagera@euskalnet.net / b.e.e.@euskalnet.net
Diseinua: Aitor Hernandez.
Maketazioa: Eneko Abrego.
Publizitate arduraduna: Maria Albillos.
Tfnoak: (943) 429593 / (943) 426807.
Kudeaketa eta harpidetzak: Amaia Makazaga.
Argazkilaria: Imanol Otegi.
Korrespontsalak: Raul Perez (kirola), Aitor Navarro (Inbaurrondo), Alex Aisa (Igeldo), Lierni Otamendi (Añorga), Leire Balda (Loiola), Aitziber Gurutzeaga (Egia), Elixabete Belaustegi (Gros-Ulía), Asier Larrañaga (Amara Berri), Eva Monente (Amara Zaharra), Gurutze Jauregi (Parte Zaharra), Iker Marin (Aiete), Inaki Okariz (Erdialdea), Erika Erkizia (Antigua), eta Larraitz Garmendia (Altxa eta Herrera-Bidebieta).
Kolaboratzaileak: Karlos Irazu, Karlos Lozano, Mattin, Sergio Basurko, R. Florza, Aitzpea Goenaga, Harkaitz Cano, Karolina Sainz de Vicuña, Xabier Zaldúa, Felipe Juaristi, Xabier Otaegi, Ainhoa Etxebeste, Ainhoa Beola, Martin Aramendi, Joseba Ramirez, Mikel Agoues, Inaki Iturain, Ander Hormazuri, Ainhoa Irazu, Kike Diez de Ultzurum, Mikkel Reparaz, Franck Dolosor eta Aitor Zuberogoitia.
Erredakzio kontseilua: Luis Fernandez, Inaki Iturain, Arantxa Kaltzada, Marije Manterola, Josu Landa, Eduarne Otamendi, Jon Dorronsoro, Ander Usabiaga, Alex Aisa eta Alberto Irazu.
Tirada: 5.000 ale. **Inprimategia:** Antza.
Lege gordailua: SS-246/94 **ISSN:** 1134-0517.
Copyright: IRUTXULO Donostiako Astekaria.

IRUTXULOk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ekimenez egina

San Joan 14

(Sarrera Aldamar kaletik)

20003 - DONOSTIA

Tfnoa: (943) 43 12 28. Faxa: (943) 43 11 90

e-mail: bagera@euskalnet.net
b.e.e.@euskalnet.net

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Eusko Jauritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua



Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Gai librean

Hamar urtez lokal eske Udalari

Hamar urte dira BAGERA sortu eta handik 4 urtetara IRUTXULO plazaratu genuela; asmo nagusia hartan eta honetan Donostia euskaldunagoa eratztea eta euskaldunon Donostia indartzea izan da. Hamar urtetan lokalez lokal ibili gara, sekulako errentak pagatzen, itsasoak ere bota izan gaitu, baina urteetan Donostiako euskalgintza osatzen duen sarean lanari eutsi diogu. Hamar urtez 3 agintaldi eta bi alkate pasa ditugu, eta bilerak, proiektuak nahiz asmo berriak aurkeztu arren, lokala jasoko genuela hainbatetan entzun eta urtetan ez dugu lortu. Hamar urtez emandako hitza ahan-tzi da, eta lokalik ez ematearen arrazoi bereziak azaldu zaizkigu: nazio mailako elkarteak ez garelako (nahiz eta lurraldeko hiriburuko elkarteak garen), txikiak garelako (5.000 aleko astekaria atera eta ia

Ainhoa Beola



Ainhoa Beola

mila bazkide eduki arren), beste sektoreek lehentasuna izan omen dutelako (sektorekako sail ugari badugun arren), momentuan ez delako lokalik egon (eta egon denean ez omen delako gure momentua izan), eta abar luze eta ernegagarria. Lokala edo bestelakorik lortzeko haundimaundien babes behar omen da, edo botorako errentagarri izan, edo argazkirako koloretzu azaldu. Bistakoa da Donostia pluralean hiri anitza eta irekia nahi dugunok lokala lortzerakoan daukagun arazoak, hiritar aktibodun garen neurrian (biztanle, botemate eta pagatzaile), susmoak pizten dizkigula pluraltasun horren inguruan. Aldarrikapena beraz sinplea da: hamar urtetan lokala ematearen hitza bete ez denez, emandako hitza behingoz bete dadila, guztiok Donostia eraikitzen duinki jarraitu ahal izan dezagun.



Juan Carlos Lopez-i erantzuna

Zur eta lur geratu naiz Juan Carlos Lopezek "Auditz-Akular, zorioneko auzoa" izenburuarekin sinatutako artikulua irakurri dudanean. "Udaleko sototik" idatzi omen dituzu hitz horiek eta horrela bakarrik uler daiteke auzo berri horretaz esaten duzuna. Sentitzen dut zure ilusioa zapuztea baina ekimen hori, zure ustearen kontra, gehiegikeria izugarria da. Sototik atera eta konturatuko zara, aurretik, ilustratzeko jarri duzuen argazkia ez dagokio-

la eremu horri. Gero, bertatik bueltatxo bat ematen baduzu konturatuko zara aurreikusten den proiektuak ez dituela konponduko. Altxan orain daukagun beharrak eta etorkizunerako beste hipoteka izango dela. Zuretzat amets bat izango da, baina hainbat eta hainbat altxatarrontzat, berriz, amesgaiztoa.

Iñigo Landa

Oharra: Gutunak ezingo dira 15 leurretik gorakoak izan eta aldizkariak eskubidea du laburtzeko. IRUTXULOk egilearen izen deiturak, NA eta telefonoa jakin beharko ditu, nahiz eta gutunak goituzen edo inizialez argitaratu daitezkeen. **Helbidea:** IRUTXULO, San Joan 14, 20003 DONOSTIA. **E-mail:** txulo@euskalnet.net